

BILERA MOTA: AUZOTAKO BILERA UGALDETXXO **ZENBATGARREN SAIOA : 1**

DATA:	HASIERA ORDUA:	BUKAERA ORDUA:
2015-11-03	19:38	21:13

BILDUTAKOAK:

Udal ordezkariak: Ioritz Aizpuru, Iñaki Pikabea, Jexux Leonet, Enekoitz Azpiroz, Eneritz Arbelaitz

Auzotarrak: 14

16-30 urte: 3
30-50 urte: 5
>50 urte: 4

Emakumeak: 8
Gizonezkoak:6

Euskaraz

AKTALARIA: Eneritz Arbelaitz

GAIA

ERABAKIA

1	Aurkezpena	Udaleko kideak aurkeztu dira eta zinegotzi arduradunaren jarduna azaldu.
2	Aurrekontuak 2016	Aurrekontuen oinarrizko kontzeptuak aurkeztu dira. Hobarien inguruan galdera bat egin du auzotar batek: ea biñetaren hobarian aldaketa egin den eta hobaria handitu den. Azaldu da kexak egon zirela, eragiten zioten herritar multzo bat joan zela udaletxera, eta beraien eskaera aztertu du Udalak. Inguruko herrietan zein zen egoera aztertu zen, eta erdibideko zerbait bilatzeko %90eko hobaria aplikatuko da.
3	2015eko lanak	Ioritzek azaldu du aurreko legegintzaldiko auzoko arduradunarekin bildu zela eta horren arabera egin beharreko lanak zein egoeratan dauden azaldu du. - Futbol zelaiko aparkalekuko egokitza penaren prozesuan. - Atamitxeko kruzea: bidegorria eta errepidea bereizi. - Espaloiak: · Xeberone aurrean: bizilagun batek komentatu du partxeatu zela, baina orain berriro gaizki dagoela. Soluzio hobea behar duela. · Talaia: ur hoditeria berrituko da eta espaloi berria egin. · Ihurrita: esleitua dago.

		· Katalintxo eta mendibil: Dukeko obra egiten denean hauek bideratu. · Duk: hasi dira - Matteoko geltokian kristala jarri atzean eta eskubitara. (Argazkia jarri dela aprobetxatuz, bizilagun batek esan du Isastitik heldu den batek Iturriotzera joan beha badu, erreka panpano handiak traba egiten duela. Beste batek gehitu du abiadura handian etortzen direla kotxeak Alzibartik. Isastitik heldu denak Ugaldetxora joatean ere stopa egin beharrean ceda egiten dute eta zebrabidea gainean dago. Beste batek esan du Aldundiarekin jarri zirela harremanetan eta Aldundiak esan ziotela Udalaren esku uzten zutela abiadura moteltzeko zerbait egitea. Asteburuetan gainera jende asko ibiltzen da eta ongi jarri beharra dago. Zebrabideak, seinaleak, guardia tumbado horrelakoak jarri eta horrelakoak egiten saiatu beharko dugula dio Jexuxek). - Autobus geltokien antolaketa: Mendibilgo kaxkoko geltokia entsaio lekura mugitzea. Matteoko geltokia, berriz, Intxixu aurrera mugitzea litzateke. Batzuk ongi ikusten dute eta beste batzuk diote ea gaizki egiten duten kotxetako gidariengatik aldatu behar ote den. Eztabaida dago ea zer egin behar den. Hala ere, ondorioztatu da arriskua ekidin badaiteke, horren arabera erabakia hartu behar dela.
4	2016ko inbertsioak	Azaldu da lau urteko ikuspegiaren baitan erabakitzea lehentasunak. Arraguatik hasi eta Matteora espaloiak berritzen hasiko gara eta horrek ere txukunduko du auzoa. Bidegorrian ibilbidea markatzea eskatu dute. Bestalde, egurrezko hesietan diru asko gastatzea ez duela merezi dio. Seinalizazioa egin beharko da, txakurrak lotuta joan behar dutela... Bidegorrian azterketa bat egin behar da. Oraingoz leku arriskutsuekin hasiko gara hesiak berritzen. Bidegorria egin zenean panelak omen zeuden arauak azalduz. Berriz jarri beharko dira. Iaz proposamena egin omen zen auzolanean bidegorrian lurrean marra kontinua bat marrazteko. Auzo bakoitzak bere tramoak egitea. Txipitoko malda ere gaizki dago.
5	Mantenu lanak	- Matteoko bidegurutzean <i>guardia tumbado</i> jarri zebrabideen bi aldeetan. Aldundiarekin hitz egingo dugu. - Entrenatsetik heldu diren haurrak espaloitik joan beharrean Garrotik joaten dira bizikletan aurkako norantz. Arazo handia dago. Agian

		errepidea berbideratu behar da hor. - Mamuteko atzekaldeko eta zuaznabarko erreka ondoko barandak oso gaizki daude. - Igero baserritik bidegorrira jaisten den herribidea geratuta dago. Hitz egin zer hor bidegorria luzatu daitekeela. Udalak larra moztu egiten du. Zalantza bat argitu du batek jai batzordeak Atamitx erabiltzen duela eta noiz arte erabil dezakeen ez dakitela. Hau kontuan hartzea nahi du eta auzoko lokal bat behar dela adierazi, ez baitakigu Amenabarrek zein asmo dituen eta noiz hasiko den hemen zerbait egiten. - Kalexa plazan parkearen ondoan jardn batzuk egin ziren. Azpian garajea dago. Euria egiten duenean zikindu egiten da ingurua. Ez daki hori herriarena den edo ez. Txukunketa udaletxearen esku geratu omen zen. Belardia kentzea hobe litzatekeela dio. Agian hormigoia jarri eta pinpon mahaia edo zerbait jar daiteke.
6	Balorazioa	Balorazio orriak bete dira.

Lehentasunak:

- Matteo-Intxixu errepideko arazoa konpondu.
- Xeberone aurreko espaloia ongi jarri.
- Autobus geltokiak berrantolatu.
- Txipito

2015 URTEA

2016ko aurrekontuak



Balorazioa	
Hilariak: bileran zehar emandako azalpenak	8,5
Hizlariak: ondo gidatu dute bilera	8,5
Bileran erabili den metodologia	8,5
Herritarren asistentzia	4,3
Herritarren partehartzea	7,5
Saioa probetxugarria izan al da?	8,3
Egokia da eguna?	9,4
Egokia da ordua?	9
Egokia da lekua?	9,4
Denera batz bestea	8,2

Komunikazio bideak	Kop	%
Bandoa/kartelak	3	14
Irratia eta prentsa	1	4,5
Sare sozialak	13	59
Ahoz-ahoz	4	18
Udal aldizkaria	1	4,5